

# EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN ETA HAREN TRESNA KOMUNEN DEKRETUAREN PROIEKTUA. ARAU-ERAGINAREN AZTERKETAREN MEMORIA

## Edukia

A. Proposamenaren egokitasuna eta erregulaziorako aztertu diren bestelako irtenbideak.....	2
B. Edukia .....	3
C. Azterketa juridikoa .....	6
D. Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzea .....	9
E. Ekonomian eta aurrekontuetan duen eragina .....	11
F. Administrazio-kargak eta haiek betetzearen kostua .....	13
G. Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.....	15
H. Hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzko adierazpena .....	20
I. Haur eta nerabeen gaineko eraginaren ebaluazioa .....	22
J. Izapidetzearen deskribapena .....	22
K. Gazteen gaineko eraginari buruzko ebaluazioa .....	23
L. Irisgarritasunari buruzko azterketa.....	24
M. Bestelako eraginen ebaluazioa (ingurumenekoa, gizartekoa eta kostu- onura).....	25
N. <i>Ex post</i> ebaluazioa aurreikustea .....	25
ERANSKINA - Toki-erakundeen finantza-nahikotasuna ziurtatzeko baliabide- zuzkidura .....	26



# **A. Proposamenaren egokitasuna eta erregulaziorako aztertu diren bestelako irtenbideak**

## **1. Beharrezkoa eta bidezkoasuna justifikatzea**

Arau-proposamen honen bidezkoasuna, lehenik eta behin, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legeak (aurrerantzean, EEL) ezarritako erregelamendu bidez garatzeko nahitaezko mandatutik dator. Lege horrek paradigma-aldaketa bat ekarri du euskal enplegu-sisteman; izan ere, igaro da laguntza-politiken eredu batetik enplegarritasuna hobetzeko prestazioaren edukia duten eskubide subjektiboak aitortzean oinarritutako eredu batera.

Dekretu hau onartzea beharrezkoa da EELn aurreikusitako erregelamendu bidez garatzeko mandatuari erantzuteko eta lege horrek aitortzen dituen eskubideei eta zerbitzuei edukia emateko, Euskal Enplegu Sare osoan prestazio-esparru komun bat bermatuz.

EELk eskubide hauek aitortzen ditu: arreta pertsonalizatua, enplegarritasun-diagnostikoa eta enplegurako plan integratu eta pertsonalizatua. Zerbitzu horien eduki teknikoa, kalitate-estandarrak eta protokoloak definituko dituen erregulaziorik gabe, eskubide horiek adierazpen programatiko huts gisa geldituko lirarteke, edukirik gabe eta administrazio-bideko erreklamaziorako bide argirik gabe.

Ezinbestekoa da esparru funtzional bakar bat egituratzea, Euskal Enplegu Sareko kide guztien (Lanbide, aldundiak, udalak eta erakunde laguntzaileak) jarduera antolatzeko. Dekretuak zerbitzua zatitzea saihesten du, eta laguntzen du edozein pertsonak, artatzen duen lurraldea edo erakundea edozein dela ere, prestazio homogeen eta kalitatezkoa jaso dezan.

Gainera, beharrezkoa da EAEko araudia harmonizatzea Enplegu Sistema Nazionalaren Zorro Komunarekin (Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituen apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuak erregulatua) eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (5. erreforma) eratorritako modernizazio-konpromisoekin.

## **2. Enpleguaren Euskal Estrategia 2030ekin (EEE 2030) bat etortzea**

Proiektua Enpleguaren Euskal Estrategia 2030en helburuak lortzeko pieza operatibo gisa eratzen da. Guztiz bat dator sektore estrategiko hauekin:

- 3. proiektu traktorea: Lanbide Hobetzen. Dekretuak bultzatzen du Lanbide eredu malguago eta emaitzetara bideratuago baterantz eraldatzea, pertsona sistemaren erdigunean jarriz.
- Erabiltzaileei arreta emateko eredu berria: EEE 2030i jarraituz, dekretuak zorroaren ikuspegia zabaltzen du; langabeentzat ez ezik, baita landunentzat (etengabeko ikaskuntza behar duten erabiltzaile berri gisa) eta enpresentzat

ere, prestakuntza-eskaintzaren eta ekoizpen-sarearen benetako beharriaren arteko lotura sendotuz.

- Hiru trantsizioei erantzutea: Zorroa diseinatuta dago trantsizio demografiko, teknologiko-digital eta klimatikoaren erronkei aurre hartzeko, lan-merkatuaren eskari berrietara egokituz profil profesionalak eta gaitasunak.

### **3. Arauaren justifikazioa, «erregulazio ezaren» aukeraren aurrean**

Gaur egungo egoerari eusteko aukera (ez erregulatzeko) aztertu da, eta baztertu egin da arrazoi hauengatik:

1. Arau-hutsunea eta auzi-arriskua: «Erregulazio ezak» EELren lege-mandatuak ez betetzea dakar. Eskubide subjektiboak direnez, erregelamendu bidezko zehaztapen-faltak babesgabetasuna eragingo luke herritarrengan, eta administrazioaren aurkako gatazka juridikoak areagotuko liriateke, legeak aitortutako eskubideak gauzatzeko ezintasunagatik.
2. Segurtasunik eza Euskal Enplegu Sarean: Dekretu hau gabe, udalak, aldundiak eta gainerako erakundeak modu nahasian integratuko liriateke sarean, protokolo komunik eta esku-hartzeen trazabilitaterik gabe; horrek bikoiztasunak, gastu publikoaren efizientziarik eza eta erabiltzailearen postakodearen araberrako zerbitzu gorabeheratsua eragingo lituzke.
3. Elkarreragingarritasuna galtzea: Tresna komunei buruzko erregulaziorik ez egoteak (hala nola lan-historia bakarra) integrazio teknikoa eragotziko luke estatuko sistemarekin (SISPE), zailtasunak eraginez prestazioen kudeaketan eta laneratze-ibilbideen jarraipenean.

Ondorioz, ez erregulatzeko aukera desegokitzat jotzen da, ez baitu uzten lege-mandatuak betetzen, ezta sistemaren homogeneotasuna, segurtasun juridikoa eta elkarreragingarritasuna bermatzen ere.

## **B. Edukia**

Arautzeko teknikaren gidalerroei jarraituz, memoria honen xedea ez da proiektuaren manu guztien azalpen zehatza ematea, baizik eta sektoreko ordenamendu juridikoan funtsezko aldaketa dakarten xedapen esanguratsuenak zehaztea.

### **1. Egitura, xedea eta definizioak (I. kapituluak)**

I. kapituluak funtsezko antolaketa-eginkizuna betetzen du: dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua zedarrizten ditu, zerbitzu-zorroaren arkitektura orokorra finkatzen du, eta Euskal Enplegu Sareko agente guztiek modu homogeneoan aplikatzeko behar diren definizio operatiboak ezartzen ditu. Era berean, ereduaren printzipio gidariak identifikatzen ditu (pertsonak erdigunean jartzea, eskubideen ikuspegia eta maila anitzeko koordinazioa) eta ondorengo kapituluetan garatzen diren gobernantzen

oinarrizko elementuak eta tresna komunak kokatzen ditu, prestazioan segurtasun juridikoa eta koherentzia teknikoa bermatuz.

## **2. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa (II. kapituluak)**

II. kapituluak (5-11 artikulua) zerbitzu-zorroa eratzen du pertsonen (langabeei nahiz landunei) zein enpresei eta erakunde enplegatzaileei zuzendutako prestazioen eta jarduketan multzo egituratu gisa, eta zuzenean lotzen du EELn aitortutako eskubideen eraginkortasunarekin.

Bloke horren garrantzi juridikoa zorroaren gutxieneko edukia finkatzean datza (orientazioa, lanerako prestakuntza, bitartekaritza eta enplegua, autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholkularitza, pertsona, enpresa zein erakunde enplegatzaileentzako aholkularitza eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua). Era berean, pertsona eta erakunde hartzaileak zehazten dira, bai eta 438/2024 Errege Dekretuan aurreikusitako izen emateko eta sartzeko kategoriekin bat etortzea ere. Horrez gain, kalitate- zein baliabide-betekizun komunak sartzen dira (langileen trebakuntza, irisgarritasun unibertsala, berdintasun-bermeak eta genero-ikuspegia, eta sexuen arabera bereizitako adierazle homogeenak), agindu bidez gehieneko ratioak finkatzeko xedapena barne. Gainera, zorroa eguneratzeko araubide mugatu eta ziur bat xedatzen da, zerbitzuak merkatuaren bilakaerara eta plangintza estrategikora egokitzeko, segurtasun juridikoa babestuz horrela.

## **3. Arreta, informazio eta prospekziarako tresna komunak (III. kapituluak)**

III. kapituluak (12-25 artikulua) tresna komunak jasotzen ditu sareko kide diren erakunde guztientzako nahitaezko euskarri operatibo gisa, jarduketan jarraitutasuna, homogeneotasuna, elkarreragingarritasuna, informazio partekatua, koordinazioa eta emaitzen ebaluazioa bermatzeko helburuarekin.

Ikuspuntu juridiko batetik, dekretuak eredu bikoitz baten alde egiten du: erregelamenduzko arauan funtsezko ezaugarriak eta gutxieneko tipologia finkatzen ditu, eta agindu baten esku uzten ditu garapen teknikoa eta erabiltzeko, eguneratzeko eta mantentzeko baldintzak; era berean, Lanbideri ematen dio diseinuaren, kudeaketaren eta zainketaren ardura, aurrez aurreko sarbidea baztertu gabe eta arrakala digitalaren aurrean aukerak aurreikusiz.

Osagai nagusi gisa identifikatzen dira hauek: arreta eta jarraipenerako tresna komuna (jarduketan erregistro integral eta trazagarria, eta zorrora sartzeko betekizuna), lan-historia bakarra (gutxieneko edukia, kontserbazioa, erantzukizunak, sarbidea eta erabiltzaileen eskubideak) eta enpresaren espediente bakarra (prospekzioa, trazabilitatea eta enpresei zerbitzuak ematea). Azken horien osagarri dira informaziorako eta eskaintzak/prestakuntza/zerbitzuak kudeatzeko sistema komunak, profilak egiteko tresna (berdintasuna, diskriminaziorik eza eta gardentasuna eskatuz) eta Enplegu eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia. Kapitulu honek, gainera, berme indartuak jasotzen ditu konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren alorrean, barne

direla lan-historia bakarrerako sarbide-murrizketak eta sarbideen trazabilitate-protokoloak.

#### **4. Zorroan sartutako zerbitzuak (IV. kapitulua)**

IV. kapitulua (26-72 artikulua) prestazio-mailara jaisten da, eta, sistematika homogeen batekin, zorroan sartzen diren zerbitzuak definitzen ditu. Haren ekarpen juridiko nagusia bikoitza da: alde batetik, espresuki zedarrizten du zer prozesu geratzen diren zorroaren barruan (eta, beraz, prestazioekin eta trazabilitatearekin lotuta) eta zein kanpoan, eskubide zuzenik gabeko barne-euskarri izateagatik; bestetik, orientazio-zerbitzuaren inguruan egituratutako arreta-eredu bat eratzen du, haren prestazio teknikoak ezarriz (triajea, enplegarritasunaren diagnosi pertsonala, Enplegurako Plan Integratu eta Pertsonalizatua —EPIP—, eta tutoretza/laguntza) eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak finkatuz. EPIPi buruzko araubide bermatzaile bat sartzen da (izaera dinamikoa, estatuko Jarduera Akordioarekin eta, hala badagokio, gizarteratzeko tresnarekin —IPIP— koordinatzea), bai eta ez betetzea justifikatzeko inguruabarrei eta haien balorazioari buruzko prozedura-xedapen garrantzitsuak ere.

Kapitulua gainerako zerbitzuak ere erregulatzen ditu (lanerako prestakuntza, bitartekaritza eta enplegua, autoenplegurako eta ekintzailtzarako aholkularitza, enpresa eta erakunde enplegatzaileentzako aholkularitza eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua), definituz xedea, hartzaileak, sartzeko baldintzak, espero daitezkeen emaitzak eta tresna komunetako integrazioa, eta indartuz ibilbidearen logika, erakundearen arteko koordinazioa eta emaitzetzarako bideratzea.

#### **5. Kalitate-, efizientzia- eta ebaluazio-estandarrak (V. kapitulua)**

V. kapitulua (73-75 artikulua) ezartzen du zein kalitate-, efizientzia- eta ebaluazio-esparrua aplikatu behar duen Lanbidek eta sareko gainerako erakundeek zorroko zerbitzuak ematean. Gutxieneko estandarrak xedatzen dira (baldintza materialak eta langileen arlokoak, kanal anitzeko irisgarritasuna eta erabilgarritasuna) eta, bereziki, agindu bidez profesional bakoitzeko gehieneko arreta-ratioak finkatzea, Europako batezbestekoak erreferentzia hartuta. Kontu-ematearen eredu adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeenetan oinarritutako ebaluazio baten bidez egituratzen da, sexuen eta lehenasunezko arretako kolektiboaren arabera berezita, aldizkako audiotretza tekniko eta egiaztapenekin eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari igortzen zaizkion urteko txosten publikoekin. Azkenik, jarduketan trazabilitatea finkatzen da (triajea, diagnostikoa, EPIP, tutoretza eta abar), tresna komunetan eta lan-historia bakarrean erregistratuz, eta bereizi egiten dira ebaluazio operatiboa (Lanbide) eta Besaldiri esleitutako ebaluazio estrategikoa eta eraginaren ebaluazioa, indartuz gardentasuna eta etengabeko hobekuntza.

#### **6. Xedapen gehigarriak eta zorroaz kanpoko prozesuen zedarritzea**

Proiektuak tresna eta jarduketa jakin batzuen zeregina zehazten duten xedapen gehigarri batzuk jasotzen ditu: bereziki, arauak zorroaz kanpoko berrikuntza-

prozesuak zedarritzen ditu (prestazio-izaerarik gabeak eta eskubide subjektiborik sortzen ez dutenak) eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide mistoen bidezko prestazio koordinatua aitortzen du zerbitzuak egituratzeko antolaketa-modalitate gisa, tresna komunetan erregistratuta. Era berean, argitzen da EELren programa osagarriek zorroko zerbitzuekin alderatuta bestelako izaera dutela eta dekretu espezifiko bidez onartuko direla, eta 438/2024 Errege Dekretuarekiko koherentzia-arau interpretatzaileak sartzen dira.

## **C. Azterketa juridikoa**

### **1. Arauzko gaikuntza, maila eta erregulazio onaren printzipioak**

Dekretu-proiektua ematen da EELren 65.1.a) artikulua Eusko Jaurlaritzari ematen dion erregelamendu bidezko garapen-eskumena gauzatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan enplegu-zerbitzuak gauzatzeko eta antolatzeko dituen eskumenen inguruan, eta dekretu-mailarekin onartzen da, kontuan hartuta haren izaera orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-prestazioaren sistemaren antolamenduan duen eragina.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina errepikatuaren arabera, dekretu-maila arau-tresna egokia da zerbitzu publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eragina duten eta lege-xedapenak garatzen dituzten izaera orokorreko xedapenetarako, baldin eta aplikatzekoa den lege- eta eskumen-esparrua errespetatzen bada; inguruabar hori bat dator oraingo proiektu honekin.

Arau-ekimenak, era berean, EELren lege-mandatu espresuei erantzuten die, enplegu-zerbitzuen eraketa homogeenari, haien kalitatearen bermeari, informazio-sistemen elkarreragingarritasunari eta arlo horretako politika publikoen ebaluazioari dagokienez.

Oinarrizko estatu-esparruaren ikuspegitik, proiektua bat dator enpleguaren arloko estatuko legeriarekin eta Konstituzioaren 149.1.7. artikuluan ezarritako eskumen-banaketarekin; izan ere, erkidegoaren eremuan zerbitzuak gauzatzeko eta kudeatzeko eginkizunak garatzera eta antolatzera mugatzen da, oinarrizko araudiaren funtsezko edukia ukitu gabe.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutako erregulazio onaren printzipioei dagokienez, proiektuak printzipio hauek betetzen ditu: beharrian- eta efikazia-printzipioak, helburuak lortzeko arau-tresna egokia baita; proportzionaltasun-printzipioa, helburu horiek lortzeko ezinbesteko erregulazioa baitu; segurtasun juridikoarena, indarreko ordenamenduan modu koherentean integratzen baita; gardentasunarena, aurreikusitako parte-hartze eta publizitate-izapideak igaro baititu, eta efizientziarena, baliabide publikoen erabilera arrazionala eta zerbitzuaren prestazioaren hobekuntza bultzatzen baititu.

## **2. EELrekin bat etortzea eta prestazio-eskubideen konfigurazioa**

Arauaren funtsezko oinarria EELren 25. artikuluan eta hurrengoetan dago; artikuluhoriek zerbitzu-zorroa antolatzen dute, enplegagarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko bermaturiko prestazioen eta jarduketan multzo egituratugisa.

Ikuspuntu juridikotik, dekretuak zehazteko funtsezko eginkizuna betetzen du: legeak aitortutako eskubideak (arreta pertsonalizatua, enplegagarritasun-diagnostikoa, plan integratua, tutoretza, prestakuntza eskura izatea, bitartekaritza, aholkularitza eta informazioa eskura izatea) eskema operatibo bihurtzen ditu, zerbitzuak, hartzaileak, sartzeko baldintzak, trazabilitatea eta estandarrak definituz. Zehaztasun-maila horrek administrazioaren betebeharrak korrelatiboen multzoa ere zedarritzen du (prestazio homogenea, eskuragarria eta diskriminaziorik gabea; jarduketan erregistroa eta zainketa; koordinazioa sarean) eta, hala badagokio, erabiltzaileek aktibazio-tresnei lotuta dituzten betebeharrak (elkarrizketetan parte hartzea, ibilbideko jarduketak onartzea, aldaketa esanguratsuak jakinaraztea), harreman juridiko-administratiboan segurtasun juridikoa eta aurreikusgarritasuna indartuz.

## **3. Estatuko arau-esparruarekiko harremana eta oinarrizko araudiarekiko errespetua**

Dekretua Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komunaren lurraldeko garapen eta egokitzapen gisa proiektatzen da —apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuak erregulatua<sup>1</sup>—, eta osagarritasun-irizpide batetik abiatuta egituratzen da: gutxieneko estandar komuna betetzen dela bermatzen du, eta, autoantolaketa gaitasuna baliatuz, zehaztu eta zabaldu egiten du prestazio-intentsitateari, metodologiari eta tresna komunei dagokienez.

Estatuko oinarrizko araudiarekin bat etortzea kontzeptuak harmonizatuz babesten da (ibilbidea, jarduera-akordioa, izena emateko kategoriak eta sartzeko arauak), estatuko kategoriekin kontraesanak egotea saihestuz. Arretaren elkarreragingarritasuna eta eramangarritasuna SISPErekiko bateragarritasun teknikoaren bidez jasotzen dira, eskubideen kudeaketa koordinatua egiteko baldintza baita, bai eta oinarrizkoaren (esparru komuna) eta garapenekoaren (Euskal Autonomia Erkidegoko antolaketa eta prestazioa) arteko zedarritze zorrotz baten bidez ere, eskumenak inbaditzeko arriskua minimizatuz.

## **4. Arau-teknika eta segurtasun juridikoa**

Arauak erregelamendu-esparruaren teknika eta garapen teknikoa hartzen ditu, eta hori bereziki egokia da enplegu-politika aktiboetan. Dekretuak funtsezko elementuak finkatzen ditu (zerbitzu-tipologia, tresna komunak, bermeak, estandarrak eta oinarrizko

---

<sup>1</sup> 438/2024 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituen.

betebeharrak), eta sailaren aginduen edo Lanbideren ebazpenen esku uzten du garapen tekniko eta operatiboa (zerbitzu-fitxak, protokoloak, gehieneko ratioak, adierazleak eta eguneratzea). Aukera horrek ahalbidetzen du prestazioen edukia merkatuaren bilakaerara eta ebaluazio-ebidentziara arintasunez egokitzea; baina, segurtasun juridikoa babesteko, aginduek dekretuak ezarritako perimetro materiala errespetatzea eskatzen du, irizpide objektiboak zehaztuz eta gaitzeko arauan aurreikusi gabeko eskubideak eskuratzeko funtsezko murrizketa berriak sartzea saihestuz. Ildo horretatik, adierazle homogeenak, auditoretzak eta txosten publikoak aurreikusteak muga gisa jokatzen du diskrezionalitate teknikoaren aurrean, eta gardentasuna indartzen du.

## **5. Datu pertsonalak, elkarreragingarritasuna eta datuetan oinarritutako erabakiak**

Tresna komunak ezartzeak (lan-historia bakarra eta erregistro- zein jarraipen-tresnak, enpresaren espediente bakarra, eskaintzak eta prestakuntza kudeatzeko sistemak) datu pertsonalen tratamendu bizia dakar, eta, beraz, datuen babesaren esparrua sendo betetzea eskatzen du. Dekretuak bermeak indartzen ditu; izan ere, profilaren araberrako sarbide-murrizketak, sarbideen trazabilitatea eta Lanbideren zainketa xedatzen ditu, bai eta aurrez aurreko arreta-aukerak ere, bazterkeria digitala saihesteko. Gainera, triajerako eta diagnostikorako profilak egiteko tresnak gardentasuneko, diskriminaziorik ezeko eta berdintasuneko irizpideen pean (genero-ikuspegia barne) erabili behar dira, laguntza algoritmikoak zeharkako lerradurarik eragin ez dezan; horrek berekin dakar agindu bidez definitzea datuaren kalitate-irizpideak, gizakiek berrikusteko arauak eta auditoretza-mekanismoak, legezotasun-, minimizazio-, xedearen mugatze- eta segurtasun-printzipioekin koherenteak direnak.

## **6. Europar Batasuneko zuzenbideari egindako erreferentzia eta zeharkako bermeak**

Proiektua Enpleguaren Europako Estrategiaren helburuekin eta Eskubide Sozialen Europako Zutabearekin lerrotatzen da, bereziki enplegagarritasunari laguntzeko zerbitzuak eskuratzeari, orientazio pertsonalizatuari eta etengabeko prestakuntzari dagokienez.

Bermeen esparruan, bereizitako adierazleen bidezko gobernantzak eta eraginaren ebaluazioak lagundu egiten dute Europako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren helburuak lortzen. Era berean, tresna komunei lotutako datu pertsonalen tratamendua egokitzen da (EB) 2016/679 Erregelamendura (DBEO)<sup>2</sup> eta hori garatzen duen estatuko araudira, erantzukizun-, segurtasun- eta elkarreragingarritasun-esparru bat egituratuz; horrek arretaren eramangarritasuna eta agenteen arteko ibilbideen

---

<sup>2</sup> (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena

jarraitutasuna ahalbidetzen ditu, sarbide-, zuzenketa- eta, hala badagokio, eramangarritasun- zein aurkaritza-eskubideak babestuz.

## **7. Indargabetze-araubidea**

Puntu honetan, komeni da zehaztea zorroari buruzko dekretu-proiektu honek xede duela Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeen prestazio-edukia eta tresna komunak antolatzea eta sistematizatzea; horrenbestez, haren eragin nagusia ez da aurreko araubide bateratu bat ordezte, baizik eta sakabanatuta dauden jardunbideak eta garapenak integratzea eta homogeneizatzea. Ondorioz, indargabetze-ondorioak zeharka eta bateraezintasunera soilik mugatuta (*lex posterior*) jokatu du, zerbitzu-zorroaren eta tresna komunen erregulazio berriarekin koherenteak ez diren edo haien aurka egiten duten maila txikiagoko xedapenei dagokienez.

## **D. Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzea**

### **1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-tituluak**

Dekretu-proiektu hau ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak enpleguaren, ekonomia-garapenaren eta lan-legeriaren betearazpenaren arloan erkidegoko erakunde komunei esleitzen dizkien eskumen-tituluen babesean, beharrezkoak diren neurrian enplegu-politika aktiboen prestazioa eta Euskal Enplegu Sareko agenteen jarduna antolatzeko. Bereziki, dekretuak zerbitzu-sistemaren autoantolaketan (zerbitzu-zorroa eta tresna komunak) du eragina, estatuko lan-legeriaren edukia aldatu gabe; eta enplegu-zerbitzuak eta euskarri operatiboak zehaztera eta gauzatera mugatzen da —EAEko lurralde-eremuan—, EELren aurreikusitako prestazio-eskubideak eraginkor egiteko.

- 10.25 artikulua: EAERI ematen dio eskumen eksklusiboa arlo hauetan: «EAEko sustapena, ekonomia-garapena eta ekonomia-jardueraren plangintza». Titulu horrek enplegu-politika aktiboak erregulatzeko bidea ematen du, politika ekonomiko propioaren funtsezko elementu gisa, eta EAEko ekoizpen-sarearen lehiakortasuna hobetzera bideratutako zerbitzuak diseinatzea ahalbidetzen du.
- 12.2 artikulua: EAERI ematen dio lan-legeria betearazteko eskumena, arlo honetan Estatuak dituen ahalmenak eta zerbitzuak bere gain hartuz, lan-baldintzak gizarte-garapenaren mailara egokitu daitezen saiatzeko, langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz. Titulu honen pean, arauak orientazio-, prestakuntza- eta bitartekaritza-zerbitzuen kudeaketa eta prestazio eraginkorra erregulatzen ditu.

Era berean, proiektuak Estatuaren 9.2 artikuluan du oinarria; artikulua horrek enpleguaren hazkundera eta egonkortasun ekonomikoa sustatuko duten neurriak hartzeko betebeharra ezartzen die EAEko agintari publikoei.

## **2. Tokiko autonomiaren errespetua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearekin bat etortzea**

Arau-proposamen honek tokiko dimentsioaren integrazio aitzindaria egiten du enplegu-politikan, hertsiki doituz Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean (ETEL) eta Enpleguaren Euskal Legean (EEL) ezarritakora:

- Eskumen propioen aitortza: ETELen 17.1.25 artikularekin bat etorriz, arauak udalerriei aitortzen die enplegu-planen eta tokiko garapenaren arloan duten eskumen propioa. Dekretuak ez du udalen autonomia inbaditzen; aitzitik, esparru funtzionala egituratzen du, toki-erakundeek, beren hurbiltasuna eta berehalakotasuna baliatuz, zorroko zerbitzuak borondatez eman ditzaten, baina kalitate-estandar komunak pean.
- Subsidiarotasun- eta hurbiltasun-printzipioak: Euskal Enplegu Sarea prestazio-lankidetzarako tresna gisa konfiguratzeko (EELren 19. artikulua) erraztu egiten du zerbitzua herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioak ematea, bikoiztasunak saihestuz eta lurralde-kohesioa bermatuz.
- Alerta goiztiarreko mekanismoa: Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (XOEPL) arabera, Toki Gobernuen Batzordearen esku-hartzea xedatu da, nahitaezko txostenaren bidez; izan ere, dekretuak udalen eskumenei eragiten die, bai eta EELren 86. artikuluan xedatutako finantzaketa-lankidetzako formulak zehazteari ere.

## **3. Lurralde historikoen eskumenezikiko harremana**

Dekretuak foru-aldundien eskumen-eremua errespetatzen du, eta lurraldeko enplegu-planak onesteko eskumena aitortzen du, baita Euskal Enplegu Sarean parte hartzea ere, lurralde historiko bakoitzaren ekonomia-garapenari lotutako prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak kudeatzeko, bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean (LHL) xedatutakoarekin.

## **4. Estatuko esparruarekiko egokitzapena**

Azkenik, arauak errespetatu egiten du aplikatu beharreko estatuko esparrua, bereziki enpleguaren arloko oinarrizko araudia (EEL) eta Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzuen Zorro Komuna (438/2024 Errege Dekretua), Konstituzioaren 149.1.7 artikulua (lan-legeria, autonomia-erkidegoek betearaztea eragotzi gabe) eta Enplegu Sistema Nazionalaren oinarrizko antolaketa babesten duten loturiko tituluen babesean emandakoak.

Dekretu-proiektua EAEren berezko eremuan mantentzen da: politika aktiboen eta enplegu-zerbitzuen antolaketa eta prestazioa erregulatzen ditu, baita trazabilitate eta elkarreragingarritasunerako tresna komunak ere, oinarrizko araudia betearaziz eta

1441/2010 Errege Dekretuak<sup>3</sup> formalizatutako eginkizun- eta zerbitzu- eskualdatzearekin bat etorri. Ondorioz, ez du lan-harremanari buruzko funtsezko araurik ezartzen; aitzitik, zerbitzuen prestazio publikoaren modua zehazten du, merkatu-batasuna eta eskubideen eramangarritasuna babestuz, Enplegu Sistema Nazionalarekiko bateragarritasun teknikoaren bidez.

## **5. Eginkizunen banaketa eta administrazioen arteko lankidetzak**

Eskumenen egokitzapena indartu egiten da, halaber, plangintza-, kudeaketa- eta ebaluazio-eginkizunak bereizten dituen diseinu baten bidez: enpleguaren arloan eskumena duen sailak eta Eusko Jaurlaritzak erregelamendu-esparrua eta plangintza estrategikoa finkatzen dituzte; Lanbidek bere gain hartzen ditu zorroaren kudeaketa operatiboa eta tresna komunaren gobernantza teknikoa (zainketa, sarbideak, mantentzea eta elkarreragingarritasuna); eta Besaldik, bestalde, ebaluazio- eta ikerketa-eginkizunak betetzen ditu, eginkizunen independentziarekin.

Bestetik, udalek eta foru-aldundiek sarean duten parte-hartzea lankidetzak-tekniken bidez egituratzen da (atxikipena, hitzarmenak eta EELren 86. artikuluan aurreikusitako finantzaketa-laguntza egonkorra); horri esker, lurralde-gaitasunak integratzen dira, toki-autonomia hustu gabe eta foru-eskumenak inbaditu gabe, eta, aldi berean, estandar komunak, trazabilitatea eta kontu-ematea bermatzen dira.

Ondorioz, dekretu-proiektua bat dator konstituzionaltasun-blokearekin eta aplikatu beharreko eskumenen banaketarekin, EAEn enplegu-politika aktiboak emateko maila anitzeko gobernantza-esparru bat eratzen baitu: ekonomia-garapenaren eta lan-arloaren betearazpenaren inguruko eskumen autonomikoak gauzatzen ditu, estatuko oinarriko araudia errespetatzen du, eta foru- zein toki-erakundearen parte-hartzea egituratzen du, lankidetzak- eta finantzaketa-tresnen bidez, haien autonomia babestuz eta, aldi berean, lurralde osoan zerbitzuaren homogeneotasuna eta kalitatea ziurtatuz.

## **E. Ekonomian eta aurrekontuetan duen eragina**

### **1. Baliabideen arrazionalizazioaren eta optimizazioaren azterketa**

Dekretu-proiektu honek izaera nabarmen funtzionala eta deskriptiboa du, zerbitzuen prestazio-dukia eta kalitate-estandar komunak ezartzen baititu. Gastu publikoaren efizientziaren ikuspegitik, arauak ez dakar berez EAEn lan-administrazioan giza baliabideen berehalako eta berezko gehikuntza bat, erregulatutako prestazio gehienak lehendik ere Lanbidek eta toki- zein foru-erakundeek garatzen dituztelako. Nolanahi ere, estandar jakin batzuk ezartzeak (esaterako, gehieneko ratioak, kanal anitzeko aukera eta erregistro- zein trazabilitate-betebeharrak) antolaketa- eta gaitasun-egokitzapenak eskatu ahal izango ditu ezartze-faseetan, eta haiek plangintzaren,

---

<sup>3</sup> 1441/2010 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.

garapen-aginduen eta, hala badagokio, sarerako aurreikusitako finantzaketa-mekanismoen bidez bideratu beharko dira.

Jasotako zerbitzu gehienak lehendik ere modu eraginkorrean ematen dituzte Lanbidek eta hainbat toki- zein foru-erakundeek; beraz, dekretuak prestazioen arrazionalizazio bat dakar. Haren helburua sistema optimizatzea da, efizientziarik gabeko bikoiztasunak ezabatuz eta ziurtatuz inbertitutako euro bakoitzak zerbitzu-estandar homogeen bati erantzuten diola EAEko lurralde osoan, hori gauzatzen duen agentea edozein dela ere.

Era berean, antolamendu-arau bat izan arren, ereduaren ezarpen eraginkorrak kostu mugatu eta progresiboak ekar ditzake ezarpenean, nagusiki hauei lotuta: informazio-sistemen egokitzapenari eta elkarreragingarritasunari (lan-historia bakarra, enpresaren espediente bakarra eta erregistro-euskarria), langileak estandar eta protokolo berrietan prestatzeari eta trebatzeari, eta irisgarritasunaren zein kanal anitzeko arretaren arloko hobekuntzei. Kostu horiek programazio arruntaren eta finantza-lankidetzarako tresnen barruan sartuko dira, eta Euskal Enplegu Sarea eta haren mapa arautzen dituen dekretuaren, garapen-aginduen eta -jarraibideen (moduluak, ratioak eta adierazleak) eta finantzaketa egonkorreko lurraldeko esparru-akordioen esparruan zehaztu beharko dira.

## **2. Finantzaketa-eredua ezartzea Euskal Enplegu Sarea eta haren mapa arautzen dituen dekretuaren esparruan**

Beharrezkoa da zehaztea finantza-nahikotasunaren eta erakunde bakoitzak bere gain hartutako kostuen zehaztapen zehatza ez dela arau honen xedea; aitzitik, Euskal Enplegu Sarea eta haren mapa erregulatzen duen dekretuak ezarriko dituen arau-esparruan oinarritzen da.

Sarea modu eraginkorrean sortzen denean eta toki- zein foru-erakundeak bertan integratzen direnean definituko dira lurraldeko esparru-akordioak. Akordio horiek EELren 86. artikuluan xedatutako finantzaketa-laguntza egonkorreko tresna gisa konfiguratuta daude, eta finantzaketa lotuko diete kostu estandarreko moduluei eta ebaluatzeko moduko emaitzei; haien iraupena zortzi urtera artekoa izango da, eta integratutako toki-erakundeen finantza-jasangarritasuna bermatuko dute.

## **3. Finantza-ondorioak Lanbiderentzat eta prestazioaren hobekuntza**

Lanbiderentzat, eragin ekonomikoa da «agente agregatzaile» eta tresna komunen (hala nola lan-historia bakarraren) kudeatzaile gisa duen zereginetik eratorritakoa. Haren eraldaketa juridikoak, hain zuzen ere, aurrekontu-kudeaketa arinagoa eta efikaziara bideratutakoa du helburu, ekonomia- eta finantza-kontrolak zerbitzuaren prestazioa moteldu ez dezan.

Sistemaren eragin ekonomikoan gerta daitekeen edozein gehikuntza zerbitzuen prestazioaren kalitate-hobekuntza bati lotuta egongo da hertsiki. Xedatutako finantzaketa-ereduak oinarrizko osagai bat jasotzen du kalitatea bermatzeko, eta

osagai aldakor bat, berriz, eragin-helburuei lotua (enpleguaren kalitatea eta laneratzea), ziurtatuz gastu publikoa gizarte-itzulera neurgarria duen inbertsioa dela.

Ondorioz, dekretu honek sistema gardenago, trazagarriago eta ebaluagarriago baten oinarriak jartzen ditu, eta diru-fluxu espezifikoek zehaztapena lankidetzatresnen eta sarearen maparen ezarpenaren esku uzten du. Nolanahi ere, proiektatutako ereduak finantzaketa lotzen die kostu estandarreko moduluei eta emaitza ebaluagarriei, kalitatea bermatzeko oinarriko osagai batekin eta eragin-helburuei lotutako beste osagai aldakor batekin; horrek gastuaren efizientzia indartzen du, eta ebidentziaren arabera progresiboki egokitzea errazten du. Hori guztia aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak errespetatuz egituratzen da.

## **F. Administrazio-kargak eta haiek betetzearen kostua**

### **1. Azterketa-esparrua eta administrazioa erraztea**

Atal honek dekretu-proiektutik eratorritako administrazio-kargak ebaluatzen ditu, 6/2022 Legearen (XOEPL) 15.3.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Beharrezkoa da zehaztea azterketa honek prozedura-efizientzia eta herritarrentzat zein ETEentzat kargak murriztea dituela ardatz, bat etorriz Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko abenduaren 21eko 16/2012 Legean jasotako enpresaren gaineko eragintxostenaren edukiekin.

Proiektatutako arauak administrazioa erraztea eta proportzionaltasuna jartzen ditu printzipio gidari gisa, batez ere prestakuntza eskuratzeari dagokionez, baldintza formalek sisteman sartzeko oztopo gisa joka ez dezaten.

### **2. Lan-historia bakarra (LHB) kargak murrizteko tresna gisa**

Euskal Enplegu Sareko erakunde guztiek lan-historia bakarra nahitaez ezartzea da herritarrentzako errazteko tresna nagusia. Tresna horrek ahalbidetzen du ibilbide, diagnostiko eta zerbitzu guztiak euskarri komun batean integratzea. Horrek esan nahi du erabiltzailea salbuetsi egiten dela sareko edozein administrazioaren esku dauden dokumentuak edo informazioa aurkezteko kargatik, eta arretaren jarraitutasuna bermatzen du.

LHBk laguntzen du, zerbitzua ematen duen erakundea edozein dela ere (Lanbide, udala edo aldundia), informazioa trazagarria eta partekatua izan dadin, ezabatu egiten baitu hainbat agenteren aurrean triaje-elkarrizketak edo enplegarritasun-diagnostikoak errepikatu beharra.

### **3. Elkarreragingarritasuna eta prozesuen automatizazioa**

Dekretuak elkarreragingarritasun indartuko eredu bat bultzatzen du, eta, dagozkion tresna tekniko eta juridikoen bidez ezartzen den neurrian, ahalbidetzen du herritarrek datuak behin eta berriz aurkeztu beharra murriztea eta jarduketan trazabilitatea hobetzea.

Kanal digitalen eta laguntza automatizatuaren erabilerak, aurrez aurreko arreta galarazi gabe, zerbitzuaren prestazioan arintasun handiagoa lortzen eta joan-etorriak zein karga formalak murrizten lagun dezake, bai eta SISPErekiko integrazioan ere.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoen informazio-sistemarekiko bateragarritasun teknikoak eskubideen eramangarritasuna ziurtatzen du, izapide gehigarririk gabe, erabiltzailea lurralde batetik bestera mugitzen denean.

#### **4. Eragina enpresa txiki eta ertainetan (ETE)**

Enpresa-sarearentzat, eta bereziki ETEentzat, enpresaren espediente bakarra sortzeak lan-administrazioarekiko elkarreragina arrazionalizatzen du.

Sarbideko leihatila bakarrak prospekzio-beharrei, eskaintzen kudeaketari eta jasotako zerbitzuei buruzko informazioa zentralizatzen du, Euskal Enplegu Sarearekin elkarrizketa arin eta bateratua erraztuz.

Profilak egiteko eta uztartzeko sistemei dagokienez, enpresaren espediente bakarraren eta LHBren arteko lotura automatikoak enplegu-eskaintzen kudeaketa efizienteagoa ahalbidetzen du, erantzun-denborak eta talentua bilatzeko kostuak murriztuz enpresentzat.

#### **5. Administrazio-kargei buruzko ondorioa**

Ez da ikusten kargen gehikuntza garbi garrantzitsurik, elkarreragingarritasuna eta datuen berrerabilpena xedatutako protokoloen arabera gauzatzen badira. Bulego birtualaren (e-Lanbide) ezarpenak eta laguntzaile birtualen erabilerak arreta arinagoa eta eskuragarriagoa bermatzen dute, eta horrek joan-etorri fisikoen eta aurrez aurreko kudeaketen beharizana murrizten du. Herritarrentzat eta enpresentzat betetze-kostua gutxitu egiten da, sare osoan partekatutako prozesuen gardentasunari eta datuen zentralizazioari esker.

## **G. Generoaren araberako eraginari buruzko txostena**

